

IL AZALPEN PROBA • <i>Iragaitzaz - Ilunbistan</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Gasolindegiko gorapetik metro gutxira gelditu da gizona, ito beharrea. Han, egiten ari zirena utzita, bi langile ditu begira, aurrez aurre, besoak soinetik apur bat bereizita. Gizonak hitzen bat ebakitzea lortuko duela dirudien unean gasolindegiko komunetik datorren emakume bat gurutzatu zaio:

—Zer duzu, Juan? —dio larri, eta besotik oratu dio gizonari.

Gizonak emakumearen galderari kasurik egin gabe, gorputza zuzendu, jira erdia egin eta atzerantz luzatu ditu besoa eta hatz erakuslea:

—Han, gizon bat... —eta ezin izan du jarraitu.

Bi langileek ez dute askoz gehiago behar izan. Urrats batzuk egin dituzte aurrera, azalpenen baten zain, baina berehala gizonaren besoak seinalatzen dien norabidea hartu dute, hasieran ibili bizian eta gero lasterka.

Emakumeak gizonaren besoari oratu dio berriz:

—Juan, faborez... —gizonaren aurpegiaren bila, izu ukitu bat ahotsean.

Gizonak emakumea baztertzeko keinu nekatu bat egin du besoarekin. Bi langileen figurak ikusi ditu lasterka urruntzen.

Gizona metro batzuk aldendu eta gero ere, emakumeari argi heldu zaio haren arnasa hotsa. Gizona bi langileen atzetik atera da, oso mantso eta zabuka, ilunabarreko argiaren zama gainean duela.

IL AZALPEN PROBA • <i>Iragaitzaz - Ilunbistan</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Bagoiko atea ireki dutenean, ama gazteak bere aurpegia eta semearena ikusi ditu instant batez atearen kristalean islatuta. Gizon sartu berriak atearen danbatekoa entzun du atzean, uste baino ozenagoa nonbait, eta ateari eustekoa egin dio. Senezko keinuaren alferrikakoaz ohartuta, batera eta bestera mugitu du burua, eta gelditu denean sudurra hatz erakusleaz ukitu eta eskua zabalduz kopeta igurtzi du erpuruaz. Eskuak aurpegia estali dio une batez. Eskua baztertutakoan sudur hurrupa bat egin du.

Puska batean itxaron behar izan du ama gazteak gizonaren begiratu erabat pausatuta dagoela egiaztatu arte. Esertzeko tokia duen arren, gizonak zutik dirau ate ondoan, poltsa eskutik utzi gabe, esku ezkerre zamarra polar urdinaren sakelan. Tranbiaren ibiliak kulunka afitn eta etengabea eragiten dio gizonaren gorputzari.

IL AZALPEN PROBA • <i>Iragaitzaz - Ilunbistan</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Atzo jakin nian Mielena.

Martinen isiltasunak jarraitzera bultzatu du.

—Esaten ditek pare bat egun eman zituela han inor ohartu gabe –gidariak ahotsa ezarian apalduz.

Martinek, hitzik ebaki gabe, ezpainak eta begiak mugitu ditu. Gidariari aski zaio, ordea, eta buruari eragin dio bi aldeetara.

Ia bertan duten autobus batek arrankatu egin du. Hegoaldera doala dio parabrisan paratutako kartel batek. Bidaiariak begira dituzte bi gizonak. Andre batek eskuarekin garbitu du leihatilako lurrina, neska bat sakelako telefonoa kontsultatzen ari da, mutil bat kaskoak paratzen belarrietan. Gidariak eta Martinek baztertu egin behar izan dute.

—Zenbat urte falta zitzaizkion erretiratzeko? –galdetu dio gidariak Martini ahotsa autobusaren zarataren gainetik goratuz.

—Ez zekiat. Bosten bat... –dio Martinek, eta berriz ezpainen keinua aski izan da gidariari adierazteko hizpidea aldatu nahi duela.

Gidariak puruari atxiki egin dio. Keak aurpegia estali dio zenbait segundoz.

—Hi bederen laster haiz etxean.

—Hala balitz... ! –dio Martinek burua beste aldera pixka bat jiratzuz.

IL AZALPEN PROBA • <i>Iragaitzaz - Ilunbistan</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

Atea irekita igotzen hasi den unean heldu zaio berriz gizonaren ahotsa:

—Barka, eta egon bizkor!

Martinek jarlekuan eserita eta atea itxi gabe begietsi du gizonaren ibilera mantsoa hura urruntzen ari den bitartean. Bat-batean ezker oinean bermatuta zutitu da kabinan, soin-enborra atearen gainetik atereaz.

Hi, aizak!

Gizonaren mugimenduak isilak eta doiak dira kamioira igotzean. Eseritakoan begiratu laburra eta lasaia egin dio Martini. Milesker, dio gero ia ahapeka. Motxila oinen parean utzi eta anoraka erantzi gabe aurrera begira jarri da. Hotzikara ia ohartezin batek inarrosi dio bizkarra, eskuak ahora hurbildu eta hatsaz berotu ditu hatzak.

Motorra piztu orduko garmin eta izerdi kirats bizia aditu du Martinek. Leihatilan utzia duen zirrikitua handitu du diskrezioz. Errepidera ateratzeko maniobra eginda, argi keinukaria itzali gabe, hasi zaio galdezka:

—Aspaldian hintzen ibilian?

Otoitzean bezala mugitu dira gizonaren ezpainak.

—Gaur hamargarren eguna -dio orain ere lasai, begiak beti errepidean.

—Zer?

Errepidea instant batez ahantzita, azken galderaren ondotik ezpainak erabat itxi gabe, begiak harrotuta, entzundakoaren berrespenaren zain geratu da Martin, eta erantzunik ezean berriz galdetu dio gizonari:

—Hamar egun oinez?

—Inork hartzen ez bazaitu aurrera egin beharra dago –gizonak baiezkoetik eta ezezkoetik haratago.

IL AZALPEN PROBA • <i>Iragaitzaz - Ilunbistan</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*k* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua: .....

—Gogor ari haizela, gogor!

Mutilak lurrera bota ditu eskuan zituen egur zatiak. Gizonak irribarre laburrak kateatu ditu. Mutilak gizonaren bizar lozioaren usaina aditu du. Gizonak lustratuak ditu zapatak eta itxura berrikoak dira galtzak, larruzko zamarra eta atorra argia.

—Hi Xabier haiz, ez da hala?

Mutilak, gizonak dakarren poltsari itsatsi dizkio begiak.

—Hi ez haiz nirekin akordatzen, jakina...

Mutila azkar ohartu da gizonak ez duela erantzunik espero.

—Hire aitaren laguna nauk –eta gorantz tira egin dio poltsari karga bat-batean sentituko balu bezala–. Ni ere txoferra nauk.

Bisitariaren azken mugimenduak eskuan duena are gehiago nabarmentzeko balio izan du, eta mutilak poltsari erreparatu dio berriz.

Gizonaren hurrengo keinua aurrekoaren antzekoa da, baina ez bera. Utzi ez badu ere, erakusteaz gain poltsa eskaintzen ari zaiola esanen luke mutilak.